



Hezkuntza batzordean agerraldia

1. *EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEA*
2. EAEko HEZKUNTZA SISTEMAREN DATU BATZUK
3. SEGREGAZIOA SAIHESTEKO GOMENDIO ETA EBAZPENAK
 - 3.1 ARARTEKOA
 - 3.2. LHE (ILP) EAEn LEGEBILTZARREKO HERRI EKIMENA
4. EAEn SEGREGAZIOA SAIHESTEKO ORAIN ARTEKOAK
5. ZEIN DA EUSKO JAURLARITZAREN PLANIFIKAZIOA DATOZEN URTEETARAKO?
6. GURE NEURRIAK

1. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEA

Hezkuntza sistema publikoaren alde egitea helburu duen EAE mailako ekimena da ***Euskal eskola publikoaz harro topagunea***. Hezkuntza publikoaren aldeko hainbat pertsona, plataforma eta eragile batzen ditu eta 2019-2020 ikasturtean burutako *Euskal Eskola Publikoaz Harro* kanpainaren ondorioa da. 150 ikastetxek parte hartu zuten kanpaina hartan.

Topagunearen baitan elkartu garenok, euskal eskola publikoarekiko harrotasuna adierazi eta hura ardatzean jarriz, euskal hezkuntza-sistema osorako eskola bakarra aldarrikatu nahi dugu, herri bezala publikoaren, eskubide kolektiboen eta gure ume guztientzat aukeraberdintasunaren alde eginez.


Hezkuntza publikoaren garrantzia eta beharra aldarrikatzeaz gain, azken urteetan handituz joan den jatorri eta maila sozio ekonomikoarengatik segregazioa salatu egin nahi dugu eta gizarte kohesioan dituen ondorioez pentsarazi eta bazterkeriaren eta berdintasun faltaren kontrako neurriak har daitezzen exijitu nahi dugu.

Kide hauek osatzen dugu Topagunea:

Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeako, Astigarragako, Donostialdeako, Lasarte-Oriako plataformak, Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak. Goieskola. EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarte). HEIZE (Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkarten Federazioa). IKASLE SINDIKATUA, IKASLE EKINTZA, GAZTE KOMUNISTAK, IKASLE ABERTZALEAK. STEILAS, LAB, ESK eta CCOO.

2. EAEko HEZKUNTZA SISTEMAREN DATU BATZUK (ITURRIA: Euskadiko Eskola Kontseiluaren Euskadiko hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena 2017/2019)

- 1- EAEn, sare publikoak ikasleen %51 eskolaratzen du. **Europa mailan, sare itundu-privatu gehien duen hirugarren lurraldea da.**




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

- 2- **Sareak ez dira berdinak eta alde handia dago bien artean ikasle motari dagokionez:**

- Maila sozio-ekonomiko baxuena duten ikasleak sare publikoan daude.

2.3.1.c. grafikoa. PISA. Geruza bakoitzaren ISEKa 2012n eta 2015ean.




- o Jantokiko **beken kopurua** bikoitza da sare publikoan: Haur Hezkuntza

1.6.4.- Jangelako ikasle bekadunen ehunekoa ikasle guztizkoarekin alderatuta , etapen eta sareen arabera. 2018-19 ikastaroa (HBrik gabe, 2 urtetik aurrera)

	Haur Hezkuntza			Lehen Hezkuntza			DBH		
	Bekadunak	Guztira*	%	Bekadunak	Guztira	%	Bekadunak	Guztira	%
Publikoa	11.082	39.465	28,1	23.442	67.887	34,5	6.600	39.193	16,8
Pribatua	3.696	36.067	10,2	7.882	63.170	12,5	4069	45.949	8,9
Guztira	14.778	75.532	19,6	31.324	131.057	23,9	10.669	85.142	12,5


*2 urte eta 6 urte bitarteko ikasleak



- o **Publikoan** ikasleen %28,1 bekadunak dira eta itunpeko-privatuak diren ikastetxeetan %10,2. Lehen Hezkuntza publikoan %34,5 bekadunak dira, eta


itunpekoan %12,5; DBHn %16,8 publikoan eta %8,9 itunpekoan. Jatorri atzerritarreko ikasleak: horien % 67a sare publikoan eskolaratzen da, %33a itundu-privatua

1.5.7 Atzerriko ikasleen ehunekoa, etapan eta sareen arabera. 2018-19



- Hezkuntza **premia bereziak** dituzten ikasleen %63a sare publikoan dago eta %37a itunpeko-privatua.

1.4.5.- HPBE dituzten ikasleen bilakaera, sareen eta etapan arabera, 2018tik-2019ra



	Haur H.	Lehen H	DBH	ESPO	Guztira
Publikoa	2.309	6.993	3.271	1.386	13.959
Pribatua	1.311	3.975	2.767	1.400	9.453

3. SEGREGAZIOA SAIHESTEKO GOMENDIO ETA EBAZPENAK

3.1 ARARTEKOAK segregazioaren gainean emandako ebazpenak eta gomendio nagusienak aipatuko ditugu

- **2001eko TXOSTEN BEREZIA- EAEko HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIKOEI EMANDAKO ERANTZUNA**

2. Diskriminazio positiboa, baliabideak esleitzeari dagokionez bazterturiko ikaslerik gehien duten ikastetxeen alde.

3. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea.

- **Eusko legebiltzarrentzako 2007ko txostena- gomendio orokorra:**

Komenigarria da eskola mapa berriaren ildotik haurreskoletan onarpen irizpide komunak ezartzea.

...haur eskolei buruzko dekretuko arauak honakoa baitiote: "zero eta hiru urte arteko haurrak onartzeko irizpide orokorrak finkatuko ditu bai ikastetxe publikoetarako bai laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten beste ikastetxe batzuetarako."

Gaur egun ez da baldintza hori betetzen ere, ikasleak onartzeko baremoak eta ordaindu beharreko kuotak oso ezberdinak dira 0-2 urte bitarteko haur eskoletan.

(...) horren bidez, prestakuntza-ibilbide osoa diseinatzea proposatu da.

Une honetan haur hezkuntzako lehenengo zikloa (0-3) Udal Haurreskoletan eta haur eskola pribatuetan eskaintzen da. Horretaz gain, sare pribatu-itunduan hezkuntza ibilbide osoa eskaintzen da. Sare publikoan, berriz, Haurreskolak Partzuergoan 0-2 tarte amaituta, ez dago inolako lehentasunik eskola jakin batean sartzeko, lehian arituko da ikaslea edozein haur eskolatik zein etxetik zuzenean datozen gainerako ikasleekin.

- **ARARTEKOAREN 2016KO EBAZPENA - LASARTE-ORIAKO HEZKUNTZA ZENTROETAN IKASLE ETORKINAK MODU OREKATUAGOAN BANATZEKO PREMIARI BURUZKO EBAZPENAREN ONDORIOA:**

"Dena den, aurreikuspen hori interpretatzen denean, hezkuntza-plangintzak ez dio bakarrik familiak adierazitako borondateari erantzun behar. Arestian aipatutakoa gogora ekartzen badugu, nahiz eta ikastetxea libreki hautatzeko eskubidea dagoen, hezkuntza-administrazioak ez du ezinbestez familiek hautatutakoa ase behar. Nolanahi ere, hezkuntza-plangintzaren edo -programazioaren egituran eragingo duten alderdiek gidatu behar dute eta, aldi berean, horiek helburu jakinak lortzeko izango dira, besteak beste, ikastetxeen gizarte-konposizioan oreka handiagoa sustatzea. Aurrekoaren harira, neurri lagungarria da ikasle etorkinak modu barneratzailean eta orekatuan eskolatzea."

- **ARARTEKOAREN 2019ko EBAZPENA - ORDIZIAKO BI IKASTETXEEN ARTEAN ESKOLATUTAKO IKASLEAK BANATZEAN, OREKA HANDIAGOA SUSTATZEN LAGUNTZEARI BURUZKOA**

Ondorioa: *"Hezkuntza-programazioa zehaztean familien borondatea ezin daiteke irizpide bakarra izan. Hezkuntza Sailak neurtu behar du plangintza egituratzean irizpide horren ondorioa. Familien borondateak ikasleak eskolatzean desorekara eraman dezake eta ikastetxeen konposizioan oreka eta eskola-sistemaren kohesioa handiagoa sustatzearen helburua arriskuan jar daiteke"*

3.2. LHE (ILP) EAEn LEGEBILTZARREKO HERRI EKIMENA

2018ko maiatzean *Zubiak Eraikiz* plataformaren ekimenez eta 17.000 sinaduraren babesarekin aurkeztu zen LHEa Legebiltzarrean.

EAEko eskola segregazioaren aurkako eta heziketa inklusiboaren aldeko ekimena izan zen.

Datuak emateaz gain proposamen zehatzak egiten zituen.

Proposamen nagusiak: doako irakaskuntza / Inklusio Eskola Premien indizea/ Indize horretara iristen ez diren ikastetxeen itunak berraztertzea / diskriminazio positiboa.

Herri ekimenak ezezkoa jaso zuen urte bereko urriaren 4ean eta ezin izan zuen bere bidea egin, ez zen eztabaidarik izateko aukerarik ere izan.

Aipatu behar dugu Herri Ekimen Legegileak oinarri hartu zituen hainbat datu ez direla berriro argitaratu, **datuak lortzeko zailtasuna salatu behar dugu**. Gardentasuna beharko genuke atzerritar jatorriko eta ISEC baxuko ikasleen kontzentrazio erreala ezagutzeko eta urtetik urterako joera garbi ikusteko; baita itunpeko ikastetxe pribatuen finantzaketa erreala inguruan ere.

4. EAEn SEGREGAZIOA SAIHESTEKO ORAIN ARTEKOAK

ISEK baxuko ikasleen metaketa handiek ondorio txarrak ditu ikasle horien espektatibei dagokienez; baina bestalde, ISEK erdiko edo altuko ikasleak, guztiz homogeenak soilik izateak, ondorio txarrak ekartzen dizkie ikasle horiei ere. Kultur aniztasunari dagokionez, elkarbizitarako konpetentzian gaitasun gutxiago, harremanetarako trebezia murriztuak, inguruarekiko ezjakintasuna. Segregazioa ikasle guztientzat txarra da, elkarrekiko ez-egagutza, etorkizuneko arrakala soziala eta arrisku sozial erraldoiak dakartza.

Sozialki justifika ezina den errealtate honen aurrean, Eusko Jaurlaritzak orain arte egindako plan eta dokumentuak motz geratzen dira.

-2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana . Plan hau idatzi egin zen, baina horretan geratu zen, inor ez da arduratu betetzeaz eta ebaluatzeaz.

-«Atzerritar jatorriko ikasleak eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak» dokumentuan, 2018ko urrikoa, ez da neurri zehatzik agertzen.

-Hamaika Esku programa, bestalde, ez da nahikoa; segregatuak diren eskoletan irakasle bat edo bi gehiago jarri eta klaustroari formakuntza ematearekin segregazioa ez da desagertzen. Horrelako izaera duten ikastetxeei baliabide gehigarri gutxi batzuk eman eta arazoaren errora joan gabe egoera iraunaraztea, ez da konponbide integrala.

-2019ko uztailean ere, «**Magnet-Erakarri**» proiektua jarri zen martxan, EAEko sei ikastetxeetan bakarrik aplikatzen hasi zena, baliabide faltagatik. Katalunian proiektu honen bultzatzailea den Jaume Boffil Fundazioak behin eta berriz esaten du segregazioa ez dela geldituko Hezkuntza Sailak eta dagokion Udalak bereizketa horren aurkako neurri politiko espezifikokoak hartu ezean. Gurean ez da horrelakorik aplikatu.

Laburbilduz, gurean ez da hartu segregazioaren arazoari aurre egiteko neurri ausartik.

5. ZEIN DA EUSKO JAURLARITZAREN PLANIFIKAZIOA DATOZEN URTEETARAKO?

Belaunaldi berriek bizi behar duten euskal gizartea kultura anitzekoa eta askotarikoa izango da eta dagoeneko bada. Gure ikastetxeetatik hasi beharko ginateke aniztasun hori modu positiboan bizitzen, eskola baita ezberdinen arteko elkarbizitzarako lehen tokia eta leku pribilegiatua.

Gaur egun, ordea, hezkuntza-sistema dual bat dugu publiko/pribatu-kontzertatua, ikasle guztientzako aukera-berdintasuna bermatzen ez duena, eta haurrak jatorriaren, maila sozialaren edo errentaren arabera banatzea da bere ondorio lazgarriena.

Argi dago Eusko Jaurlaritzak eta hezkuntza pribatu-itunduko patronal nagusiek ez dutela interes berezirik arazo horri buruz hitz egiteko eta bai, ordea, familiek ikastetxea aukeratzeko eskubidea defendatzeko, eta ustezko eskubide hori beste eskubide kolektibo batzuen gainetik jartzeko, hala nola, aukera-berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren gainetik. Baina ez dezagun ahaztu familia guztiek ez dutela desioa den eskubide hori erabiltzeko ahalmenik eta eskubide horren atzean, guztion diruarekin finantzatzutako hezkuntza dagoela. Gainera, hezkuntza politikak eragin handia du familiek egiten duten hautuan, besteak beste, plaza publiko faltak, zerbitzu eskasek edota perfil bakarreko ikasleak izateak hainbat familia pribatu-itundura edota publiko jakin batzuetara bideratzen ditu.

Datorren hamarkada honetan, EAEko eskolek 16 urtetik beherako 30.000 ikasle baino gehiago galduko dituzte. Aurreikuspenen arabera, 0 eta 2 urte bitarteko umeen kopuruak 2028an joko du hondoa, eta hortik aurrera motel baina berriro haziko da.

Datozen urteak beraz, funtsezkoak izango dira euskal hezkuntza-sistemaren ardatza egituratzailea definitzeko. Zer egingo du Eusko Jaurlaritzak errealitate horren aurrean? Eskola publikoaren aldeko apustua egin ala itunpeko sareari emango dio lehentasuna? Familiek ikastetxea aukeratzeko ustezko “eskubidea” izango da irizpide bakarra?

0-3 urteko etapari begiratzen badiogu, egiaztatu ahal izango dugu gehien bat haurtzaindegi

pribatuetako eskaintzak direla eta beste gela asko itunpeko sarean ireki direla nahiz eta inguru hurbilean eskaintza publiko nahikoa egon (aurten 26,5 milioi euro bideratu zaizkie gela pribatu horiei). Hori al da Jaurlaritzaren ildo estrategikoa?

Egingo al du, aurreikus daitekeen jaiotza-tasaren beherakadaren aurrean, itunpeko ikastetxeak mantentzearen eta zentro publikoak ixtearen aldeko hautua? Krisian dauden ikastetxeekin zer egingo du? Haurrak beren baliabide ekonomikoen arabera diskriminatzen dituzten hezkuntza-proiektuak hitzartzen eta guztion diruz laguntzen jarraituko al du? Zer planifikazioa du, zer aurreikusi du, zer lerro itxiko dira? Sare publikoa defendatuko du, gizarte osoarena den hori, edo mesede egingo dio soilik ordain dezaketenentzako den sare pribatu-itunduari? Noiz arte finantzatuko ditu sexuagatik baztertzen duten 6 ikastetxe horiek?

Eusko Jaurlaritzari irakaskuntza publikoaren aldeko apustu garbia eskatzen diogu, zerbitzu publiko unibertsala, inklusiboa, kohesionatzailea eta doakoa eskaintzeko gai den bakarra delako. Era berean, ausardia, konpromisoa, determinazioa eta hezkuntza publikoaren aldeko apustua eskatzen diegu talde politiko guztiei. Justizia eta gizarte-kohesio kontua da; etorkizuneko jendarte bidezko, ekitatibo, kohesionatu eta inklusiboari begirako inbertsioa, indar politiko guztiek aldarrikatu beharko luketena.

Zer egingo dute Legebiltzar honen alderdi politikoek? Zein da haien apustua? Batzuen interesak ikasle guztien eskubideen aurrean babestuko dituen sistema dual eta segregatzaile bat mantentzen jarraitzea? Egoera hori blindatu nahi al du onartu nahi den Hezkuntza Lege berriak? Aniztasuna ezkutatu eta bazterkeria bultzatu?

Hurrengo urteetan ikusiko dugu zein ikasgela eta zein zentro itxiko dituen Hezkuntza Sailak eta nondik nora doazen bere lehentasunak.

6. GURE NEURRIAK

Eskola Publikoaz Harro Topagunetik, eskola publikoa indartzeko eta maila sozioekonomikoagatik segregatzen duen hezkuntza sistema dual honekin bukatzeko, hainbat neurri proposatzen ditugu bertan batu garen eragileok. Diagnostikoa argi dago, pribatiazioaren aurka egin behar dugu, baina hezkuntza sailari dagokio plan bat egitea, garatzea, eta ebaluazio jarraiaren bidez urtez urte neurri batzuk berretsi, besteak ordeztzea... Topaguneari ere ezin dugu esan %100ean zer egin behar den, baina argi dugu abian jarri behar duzuela. Gure artean sortu diren proposamen batzuk doaz hemen:

ESKOLA PUBLIKOA INDARTZEKO EZINBESTEKOAK

1. Eskola publikoak sistemaren ardatza izan behar du. Herritar guztiei kalitatezko eskaintza publikoa eskaini behar zaie horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak zuzenduz.

2. 0-18 urte eskaintza publikoa bermatu behar da herri guztietan. Gizarte kohesioa ahalbidetzeko, eskola publikoaren eskaintza indartzeko duen eskola mapa egin behar da herritar guztiei kalitatezko eskaintza publiko eskainiz etxe ondoan.

3. Hezkuntzaren **benetako doakotasuna bermatu behar da** diru publikoz finantzaturako ikastetxe guztietan, legeak ezartzen duen bezala. Baliabide gutxien dituzten familiek eskola jakin batzuetarako sarbidea eta jarraipena izatea eragozten duten oztopoak ezabatzekeo premia dago, hala nola kuotak edo eskolaz kanpoko gastu jakin batzuk, edo kooperatibista izateko ekarpen ekonomikoak. Derrigorrezko hezkuntzak, eskubide unibertsal gisa, doakoa izan behar du.

4. **Plan bereziak abiarazi behar dira segregazio-egoeran dauden ikastetxeetan**, honelako neurriekin: ezohiko giza-baliabideak, ratioen jaitsiera, matrikula bizien prozesuetatik salbuestea, Hizkuntza Indartze Programa zabaltzea, kultur-arteko dinamizazio-figurak mantentzea...

5. Ikastetxe publikoetan **hezkuntza zerbitzu nahikoak eta guztien eskura** jarri behar dira: jantokiak, garraioa (behar denean), ikastetxeak zabalik mantentzea eskola ordutegitik kanpo... Ikastetxe zein Guraso Elkarteei behar dituzten baliabideak eskaini behar zaizkie.

6. **0-3 publikoa, Haurreskolak partzuergoa**, sustatu, bultzatu eta zerbitzu publiko doakoa eta unibertsala bihurtu, hura baita eskola publikoaren eta ekitatearen oinarria. Arlo honetan, 0-2 zikloko pribatizazio-prozesua geldiarazi, ikastetxe pribatu-itunduei ematen zaizkien aparteko diru-laguntzak bukatuz.

7. Publikatzekeo aukera eman **eskola publikoaren helburuekin bat** egiten duten hezkuntza-komunitateei.

SEGREGAZIOA SORTZEN DUEN SISTEMAREKIN AMAITZEKO PROPOSAMEN BATZUK

1. Itunak arautzen dituzten araudiaren berrikuspena: ikaslearen onarpena arautzen duen 1/2018, itunak arautzen dituen 293/1987, eta ikastetxeen antolaketa eta planifikazioari dagozkion 21/2009 dekretuak, hain zuzen ere.

2. Jaiotze-tasaren beherakada-testuinguru honetan, ez da lerro pribatu berririk irekiko eta itunduko, eskaintza publiko nahikoa dagoen bitartean. Ez dezagun ahaztu eskaintza publikoa iristen ez zen kasuetarako sortu zirela sare pribatuko itunak.

3. Gizarte-kohesioari eta beharrei egiten dioten ekarpenaren araberako ikastetxeen ituntzea.

4. Ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntza amaitzean Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menperatzeko eskubidea izanik, benetako baliabideak jartzea hori gauzatu dadin. Euskalduntzen duen benetako **murgiltze eredia unibertsalizatzea**.

5. Behar izatekotan, **derrigorrezko etapak baino ez itundu** (derrigorrezkoak ez diren

etapak ituntzen dira orain).

6. **Matrikulaziorako tokian tokiko bulegoak sortu** ikasleen matrikulazio-prozesu orekatua gauzatzeko (hasierakoa eta matrikula bizia). Horrela, zenbait ikastetxek ikasleak hautatzeko prozesu informalak saihestuko dira, agerikoa baita ikastetxe askok informazio okerra ematen dutela beren intereseko familiak aukeratu ahal izateko: kuotak, erlijioa, baremazioak, kooperatibista izatea...

7. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Erkidegoko sare publikoan eta itunpeko-pribatuan **matrikulatuta dauden ikasleen datuak** (jatorri atzerritarreko ikasleak, matrikula biziak, bekadunak..) urtero herritarren eskura jartzeko duen betebeharrarekin betetzea . Administrazioak gardentasuna behar du izan.

Gasteizen, 2021eko martxoaren 29an